

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Kirolari federatu ez-profesionalek kirol jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 815849.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/815849>.

Alkatearen 2025eko otsailaren 13ko 37/2025 Ebazpena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Kirolari federatu ez-profesionalek kirol jarduerak egiteko norgehiagoka bidezko 2024-2025eko dirulaguntzetarako.

#### Lehenengoa.- Onuradunak

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik.

#### Bigarrena.- Xedea

Deialdiaren xedea da udalerrian errolatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematea probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

Dirulaguntza jaso ahal izango da legez onartutako edozein kiroletako lehiaketetan parte hartzeko eta kirol materiala erosteko.

#### Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arauak Udalbatzaren 2023ko otsailaren 27ko bilkuran onetsi ziren eta apirilaren 17ko ALHAOn argitaratu ziren (45/2023 zenbakia).

#### Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Kirol materialerako: gastuaren ehuneko 50, eta gehienez ere 100 euro.

Lehiaketetan parte hartzeko:

Probintziako lehiaketak: 50 euro.

Probintziako lehiaketak gehi Euskadikoak: 120 euro.

Probintziako lehiaketak, gehi Euskadikoak, gehi estatukoak: 200 euro.

Estatuko eta nazioarteko txapelketak: 230.

Kirol materiala eskuratzeko 100 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaitutuko egindako gastuaren ehuneko 100.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, kirol materiala eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2025eko irailaren 30ean bukatuko da.

**Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Federazio lizentzia.

Eskatutako dirulaguntzaren xede den kirol materialeko gastuari dagokion jatorrizko faktura, bai eta faktura hori ordaindu izanaren ordainagiria ere. Eskudirutan ordainduz gero, jaulkitzailerak faktura zigilatu beharko du eta eskudirutan ordaindu dela adierazi.

Urtean zehar probetan parte hartu izanaren egutegia, egiaztagiria eta zerrenda zehatza, sinatuta, eta probok probintziakoak, Euskadikoak, estatukoak edo nazioartekoak diren adierazita.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2025eko otsailaren 17a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*